

ARAZO EGOERA

GERTUKO FRUTARI KOSK!

ARLOA: Natur zientziak, ingurunea

MAILA: Lehen hezkuntza

2030 AGENDA KO HELBURUAK

Jarduera honekin 2030 Agendaren Garapen Iraunkorrerako Helburu hauek lantzen dira:



TESTUINGURUA

Euskaldunok, lurrarekiko harreman estuan bizi izan gara historian zehar. **Naturak emandakotik bizitzearen emaitza izan da baserria** eta **horren ondorio**, landa eremuan landatuak dauden **makina bat frutarbola dira**: sagarrondoak, udareondoak, gereziondoak, aranondoak,...

Lur aberatsean bizi garen seinale, alajaina!!

ARAZOA

Nafarroa hegoaldeko eskola bateko ikasleekin, elkartruke ibilaldia egin behar duzue, hau da, egun batzuk Nafarroa aldea ezagutzen ibiliko zarete eta bueltan, naparrak hemengo ingurunea ezagutzera etorriko dira.

Beraien interesa, ikastetxean lantzen ari diren gai baten ingurukoa da, frutarbolena, alegia.

Animatzen al zarete, ikastetxe inguruko landa eremuan hazten diren **frutarbolak aztertu** eta ibilbidetxo baten bidez, **aurkezpen bat** egitera?

XEDEA

Gure inguruan dugun landa eremura gerturatuz, bertan hazten diren **frutarbolen aniztasunaz jabetu** eta behaketa bidez, beraien **ezaugarriak aztertzea**.

HELBURUAK

- Gure inguruan hazten diren **frutarbolak identifikatzea**. Esaterako, sagarrondoak, udareondoak, gereziondoak, aranondoak, intxaurrondoak, hurritza,....
- Gure **zentzumenez (usaimena, dastamena, ukimena, entzumena, ikusmena) baliatuz**, landareen ezaugarriak aztertu eta gertuko harremana sortzea.
- **Bizi funtzioak** nola betetzen dituzten jabetzea: **elikadura, ugalketa eta** harremanak.
- **Landarea biziduna** dela konturatzea eta garai bakoitzeko **kanpo baldintzak** aldatzen doazen heinean, **landareengan sortzen dituzten aldaketez jabetzea**.

Naturan hezten

- Frutarbolekin batera, elkarrekintzan bizi diren **animalia, onddo eta beste landareekin batera, ekosistema aberats horretaz jabetzea.**
- Gure inguruko landareekiko eta orohar, **inguratzen gaitun natura osoarekiko esker ona lantzea.** Izan ere, zuzenean zein zeharka, naturari esker bizi baikara.

ATAZA

Landa eremura gerturatuz eta frutarbolen ezaugarrien azterketa eginez, **frutarbolak identifikatzea.** Zentzumenak erabiliz, **azterketa sakon bat** egitea. Konpostaren bidez, **ongarritzea.**

JARRAIBIDEAK

- Gure lurrean hazten diren frutarbolen ezagutza lantzeko, informazio iturri ezberdinak erabiliz, **informazio bilketa** egitea: aiton-amonak, guraso, bizilagunak, baserritarak, liburuak, aldizkariak, internet, ... erabiliz.

Ondorengo informazio iturri hauek, erabilgarri izan daitezke:

- <http://www.natureskolabizia.com/docs/Frutagintza.pdf>
- <https://www.bizibaratzea.eus>
- <https://arbolesfrutales.org>

Honako informazio mota hau eskuratzea interesgarria litzateke: inguruko landa eremuan hazten diren frutarbola motak, kokapena, nolako itxura, hostoa, lorea, fruitua, nola elikatu, ugaltu, ...

- Hurbileko landa eremura egingo den **irteera** bidez eta aurrez eskuratutako informazio lagun dela, **frutarbolak identifikatzea.** Behin, aurrez aurre jarrita, zuhaitzaren, enborraren, adarren, hostoen, fruituen, ... **marrazkiak egitea.** Ondoren, eskolan marrazki horiek **horma irudi batean adierazi** daitezke.

Identifikatzeko garai egokiena, udaberritik hasi eta udazkena bitarteko garaia da, noiz adarretan loreak, hostoak eta fruituak ikus daitezkeen. Hala ere, garai bakoitzean, frutarbolaren elementu jakin

batzuk lantzeko aukera egokia izan ohi da, beheko taulan ikusten den moduan:

Urtaroa	Elementu adierazgarria
Negua	Frutarbolaren enborra, adarkera eta begiak
Udaberria	Loreak eta hostoa
Uda	Fruitua, hostoa
Udazkena	Fruitua, orbela

Garai ezberdinetan irteerak eginez, urtean zeharreko **frutarbolen bilakaera** ezagutzeko aukera dago. Modu berean, marrazki bidez urtaroretan antolatuz, horma irudian islatu daitezke.

Urtaro bakoitzeko baldintzak aztertzeo aukera ematen du eta baldintza hauek landareengan nolako eragina duten konturatzeko ere. Azterketa hau egiteko, **zetzumen ezberdinak lantzeak** garrantzia ikaragarria du.

Esaterako, neguan, gure inguruko frutarbolak hostoerorkorrak izanik, enbor eta adarrak aztertzeo aukera paregabea da. Kasu honetan, ikusmenaz gain ukimenaren bidez, sentrazio berriak izateko aukera paregabea izan ohi da.

Udaberrian, loreen festa izugarria izan ohi da eta kasu honetan, ikusmenaz gain usaimenak ere garrantzia hartzen du.

Udazkenean, fruituak bildu eta lantzeko aukera ederra dago. Fruituak lantzearekin, dastamenak garrantzia berezia hartzen du. Kasu honetan, fruitu bakoitzaren kasuan, bere ezaugarriak lantzea gomendatzen da.

- **Frutarboletan ekosistema aberatsa** izan ohi da, frutarbola bera, inguruko ekosistemarekiko harreman estuan bizi baita. Behaketa bidez, ea inguru horretan bizi diren **animaliak: erlea, zorria, armiarma, zizarea, harra, tximeleta, txoriak (zozoa, kaskabeltza), saguzarrak,...** ikusten dituzuen edo hauen aztarnak. Edo onddoak: hezetan altua den lekuetan, **era ezberdinetako onddoak** hazten

Naturan hezten

dira. Aurrez aipatutako **horma irudia aberasteko aukera** ematen du honek, frutarbolen inguru aberatsaren kontzientzia hartuz.

- Frutarbolen elikadura, neurri handi batean, ura, eguzki izpien eta lurrean dagoen materia organikoaren menpe egon ohi da. Udazkenean bereziki erortzen diren hosto eta fruituak deskonposizio bidez, berriro frutarbolaren elikagai bihurtzen dira, **zikloa itxiz**.

Fruituak biltzen ditugun arren, gutxitan ohartzen gara, nola lagundu dezakegun.

Modu zuzen batean, **ongarriketaren bidez**, guk hartutakoaren ordaina, bueltan frutarbolari emateko aukera paregabea daukagu.

Beraz, eskolan, baserrian, auzoan edo herrian egindako **konpostaren bidez frutarbolen ingurua ongarritzea** oso gomendagarria da. Era honetara, naturarekiko daukagun **hartu-eman** horretan, jasotzen dugunaren kontzientzia piztu eta bueltan, frutarbolarentzat elikagai izango den materia organikoa emango diogu.

Ekintza praktikoa honen mezua, **naturaren lege hauxe da: hartu eta eman**, hartu nahi bada eman egin behar dela gogotik.